

KA TOPAKETA #9 (26.7.2015)

Zuloaga Plaza

Iñaki eta Jokinek KA zer den, barrutik nolako egitura duen, bere ibilbidea zein den, eta bere balore eta helburuak zeintzuk diren azaltzen dute. Partaide berriei, dokumentuak banatu zitzaizkien.

Elkartasuna, Ikusarazpena, Baliabideen lorpena
Egitura horizontala. Partehartze askea.

Topaketen garrantzia Gaien Proposamenerako, eta Erabakiak hartzeko.

KA-REN PARTAIDE BERRIAK

- ✚ **Imanol**, donostiarra. Kontaera umoristikoekin egiten du lan. Zinegile bezala, pelikula profesional bat egin zuen, aurrekontu bezala bere aurrezkiak erabiliz. Community Manager formazioa du eta esperientzia laboral eta artistiko anitza.
- ✚ **Tim**, alemaniarra baina Donostian bizi da. 16 urteko esperientziaz, gidoilari profesionala, hainbat proiektutan dabilena. Adibidez, “Apaga la Luz y Verás”. Beste partaide bat ere proposatu zuen baina ezin izan zuen etorri. Pertsona honek esperientzia du musikan eta dantzan (Kirikit taldea, Gorka eta Jonek ere kontaktua dute).
- ✚ **Maggi**, ataundarra. Musikari multidisziplinarra, instrumentista (pianoa, baxua, gitarra), kantautore elektroakustiko formatuan.
- ✚ **Aitor**, donostiarra, 15 urteko esperientzia umorezko antzerkian, amateur eta semiprofesionaletik pasata, eta mundu profesionalean murgilduta baina konpainia “ospetsu”-rik gabe. Abuztuan Keler Espazioan egongo da monologoekin. Sonia Mangasekin batera zirkuitu independente bat bultzatu nahi du (ibilbide luze bat dute) eta maila lokalean, artista lokalak haztea nahi du. Ttan Ttakun irratian ere parte hartzen du “Altza Teloia” programan.
- ✚ **Jone**, donostiarra, dantzaria. Dantza Konpainietan parte hartzen du eta dantza garaikidea jorratzen du. Musika eta dantza integratzen duten proiektuak garatzen ari da.

Jada KA-ko partaide direnek beaien burua aurkezten dute. Denera, 18 pertsona Topaketan.

TALDEAK/EKIMENAK/PROPOSAMENAK

- ✚ Aktiboan dauden taldeen errepasoa egiten da eta jaialdi antimilitaristaren azken berriak komentatzen dira (oraindik zehazteko zegoen, bilera egin eta egin gutxira gertatu delako. KA-k aurrekontua eta espazioa du jaialdi honetan).
- ✚ Talde aktiboenak: **Komunikazioa**, KA sare sozialetan bultzatuko duena, partaideen eta ekimenen memoria bat egingo duena, eta blog bat osatuko duena. **Diseinu** taldeak, buelta bat emango die gaur egungo KA-ko dokumentuen irudiei. **Ikus entzuneko** taldea, bideo/teaser-ak egiten ari da eta talde **Antimilitarista** erregularki biltzen hasiko da (horrelako dimentsioa duen jaialdi batek –KA-k 13.000 euroko aurrekontua izango du- hilabete askoko prestaketa lanak eskatzen ditu).
- ✚ **Donostiako Piratek** Nautiko inguruko eremu batean parte hartzeko eskaintza egin du. Eremu horrentzat ez die baliabiderik eman. Ekintzak 3 egunetan zehar gauzatuko lirateke baina ekimenen bolumena oso baxua izan beharko litzateke. KA-ko jendearekin kontaktatu da (horien artea, Lide) hala ere ez da lan talde bat sortuko ekimena Piraten esku baitago. Partehartze edo kolaborazio indibiduala da, KA-rena baino.
- ✚ Robertok, kantautoreentzako zirkuitu bat proposatu du. Ideia honek, erantzun oso ona izan du sare sozialetan.
- ✚ Zirkuituentzat izen bat finkatu nahi du eta espazio zentral bat (beti ere, aurrerago zabaltzeko aukerarekin). Proposatzen duen formatua honakoa da: egun bakoitzeko bi kantautore. Harremanetan gaude jada Bar El Callejon, Stringedwood... Formatu ireki eta eleanitz bat nahi da.
- ✚ Bilerara etorri ezin izan duen Uxue Arrutik, proposamen bat bidali du: Webzine/Fanzine bat sortzea PDF-n (beste formatuetara exportagarria), Elkarte eta Artistei erakusteko. KA zer den azaltzeaz gain, KA-ko partaideen profilak izango lituzke, argazkia, izena, KA-ren parte izateko dituzten arrazoiak, kontaktuak... barneratuko dituen. Lide, Kixki, Uxue eta Lisandro honekin bat egiten dute.

- ✚ Igor eta Makoki komunikazio taldera batu dira.
- ✚ “Dossier” hau ekimenetarako, beste elkarte, plataforma eta indibiduoekin harremanetan jartzeko... erabili nahi da. Hau facebooken, twitterren, paperean, pdf-n... mugitzeko, talde bat sortzea planteatzen da.
- ✚ Talde interdisziplinarrak sortzea ere planteatzen da, plataformari bakoitzak zer emango dion zehaztuta.
- ✚ Facebook eta Twitterren, ikusarazpenari buelta bat ematea beharrezkoa ikusten da. Artisten zerrenda bat sortu, sare sozialetara bideratutako ekimenen blog bat, eta artista bakoitzaren ekimenak eta KA Zuzenean ikusarazteko helburuarekin.
- ✚ Gaur egun, KA perfil bat dugu, talde itxia (interno), beste perfil bat kanpokoekin komunikatzeko eta ekimenak bultzatuko dituen hirugarren perfil bat ere martxan dago eta hazten doa, “KA Ekimen Artistikoak”.
- ✚ Beharrezkoa ikusten da Community Manager bat izatea edo horretara bideratuko den lan talde bat sortzea.
- ✚ Estrukturari dagokionez, Makoki-k dossier bat ekarri du, beste elkarte eta plataformen adibide gisa, horri buruz hitz eztabaidatzeko.
- ✚ Informazioa Dropboxera igota dago eta zuzenean deskargatu daiteke.
- ✚ Bi talde nagusi egitea proposatzen da. Lan taldeetakoak alde batetik (martxan daudenak) eta jarraipenekoak bestetik talde iraunkor batean. Azken hauek, KA-ren baloreak eta “ideologia” errespetatzen dela bermatuko dute eta talde iraunkor hau, talde bakoitzeko pertsoez osatuta egongo litzateke. Talde honek ez du erabakirik hartzen (Topaketetan hartzen dira erabakiak) baina KOORDINATU eta KUDEATU egingo ditu taldeen lanak. Topaketak hilean behin egiten badira, talde honek astero edo hamabost egunero batu beharko litzateke gehienez.

- ✚ Praktikoki hobeak izateko, Komunikazio taldea eta Ikus Entzuneko taldea batzea proposatzen da.
- ✚ Ez da ikusten Diruzaintza eta Kudeaketa taldeak banatuta egotea, izan ere, Xpressionk-k duen egituratik tiratzen baita.
- ✚ Makoki-k proposatzen duen egitura, gaur egun erabiltzen dugunaren oso antzekoa da baina ongi dator egitura ikusarazteko. Interesgarriak dira ere jarraipen taldearen proposamenak.
- ✚ Jokinek 3.675 euroko dirulaguntzak jaso direla baieztatzen du Diputazioaren aldetik eta 20.016 euro DSS2016-ren aldetik 100 ekimenetarako. Egun gutxiren ondoren baieztatu egiten da dirulaguntza horren kudeaketa erabat libre dela, beti ere 100 ekimenak egiten badira. Honek esan nahi du ekimen kopurua handitu dezakegula edo ekimen bakoitza hobetu dezakegula babes gehiago lortu ezker. Ekimen hauek, KA Zuzenean bezala bideratuko dira, hauen helburua artisten promozioa eta ikusarazpena izanik.
- ✚ Aurrekoarekin loturik, "KAja"-ren ideia proposatzen da KA Zuzenean-etarako (eta ekimen bakoitzerako). Ekimen bakoitzean leku egoki batean jarriko da eta aipamenak egingo zaizkio zer den eta zer esan nahi duen azaltzeko.
- ✚ KA Zuzenean edo beste Jaialdietan estali gabeko kostu materialen gaia ere planteatzen da. Gai hau hurrengo bileretarako utziko da.
- ✚ Iñakik, KA mota guztietako elkarteei irekitzea proposatzen du, sozialagoak direnak artistikoak baino. Aukerak zabaldu ditu jada, Alcohólicos Anónimos-ekin, Asociación por la Igualdad, Asociación Contra el Maltrato Animal, eta ain ezagunak ez diren beste batzuekin, adibidez, Art Linburu XXI. Iñakik kanpoko harremanak kudeatuko dituen komunikazio talde bat sortzea proposatzen du baina beste batzuek praktikoagoa ikusten dute, harreman horiek orain gauzatzea gaur egungo Komunikazio taldetik, bikoizketak ekiditeko. Oraindik ez dago adostasunik gai honen inguruan. Hurrengo Topaketan hitz egingo da.
- ✚ Ikastolekin hitz egitearen gaia hartzen da berriz ere, beharrezkoa ikusten baita. Hezkuntza talde bat sortzen da momentuz, Karmen,

Kixki eta Lide-k osatzen dutena. Haurrentzako tailerrak, ikastaroak... egitea planteatzen da.

Hurrengo Topaketa: Abuztuak 30, batez ere bi gaiz hitz egiteko: KA-ren baloreak eta amaieran komentatu dugun Hezkuntzaren gaia.

KA Afaria Irailaren 19an. Lekua zehazteke.